

GIZARTE-ONGIZATE EREDU PROPIO BATEN BILA

Nola jarraitu bermatzen oinarrizko **berdintasun** mailak

Egiaz berdintasunezkoa den gizarte bat gara?

Euskal Herriko lurraldeen ezaugarria izan da desberdintasuna- eta pobrezia-tasa nahiko baxuak izatea. **BAINA...**



- Hainbat esparrutan desberdintasun garrantzitsuak daude (osasun-egoeran, erreprodukzio-lanekin lotutako erantzukizunetan, partaidetza politiko eta sozialean, hezkuntzarako sarbidean eta denbora librean)
- Generoak, adinak eta jatorriak badute lotura errenta eta aberastasunaren desparekotasunekin
- Gizarte-babeseko sistema publikoek gero eta zailtasun handiagoak dituzte desparekotasun horien ondorioei aurre egin, horiek prebenitu eta arintzeko.

Mateo efektua: gizarte-babeseko ereduak lan-ibilbide seguru eta egonkorrak izan dituztenei egiten die mesede gehien. Nola hobe daiteke gure Ongizate-estatuaren birbanatzeko ahalmena?

Hegoaldeko herrialdeetako gizarte-babeseko ereduak birbanaketa-maila oso apala da, arrazoi ezberdinak direla medio. Gainera, gizarte-mugikortasunari gero eta maizago ipintzen zaizkion trabak eta adin nagusiko mendekoen arretarekiko ikuspegia kezagarriak dira.

Testuinguru horretan, zein politikek ahalbidetu dezakete aberats eta txiroen artean, emakume eta gizonen artean, haurren artean, helduen artean eta adin nagusikoen artean oinarrizko berdintasun mailak mantetzea?

Adituen arabera gizarte-politikak birpentsatu egin behar dira eta gizarte-ongizatearen eredu klasikoa eguneratu egin behar da: aurre banaketa eta Gizarte Inbertsioa

Nola berma daiteke berdintasuna hezkuntzan eta nola lortu gurasoen kultur kapitalak seme-alaben heziketa-maila ez baldintzatzea?

Nola lor daiteke helduen, gazteen nahiz haurren beharrezko erantzunaren belaunaldi arteko itun bat?

Nola uztartu daiteke aurre banaketa eta birbanaketa?

Zein oinarriren gainean eta zein mekanismorekin ahalbidetu daiteke **gizarte inklusioa**?

Euskal Herriko biztanleriaren % 15 inguru gizarte-bazterkeria egoeran bizi da

Gizarte-bazterkeria prozesuetan arrazoiak asko dira, egunerokotasuneko gabezia eta zailtasun ugarien ondorioz.

Proletariotzatik prekarietatera: biztanleria aktiboaren herena prekarietateak edo langabeziak jota dago Euskadin

Enplegurako sarbidea izatea funtsezkoa da gizarteratzearekin eta gizarte-bazterkeriarekin lotutako prozesuak azaltzerakoan; gizarteratzearen ganga-ardatz modura hartu da, izan ere, enpleguak garapen pertsonala, gizarte-partaidetza eta ongizate psikologikoa sorrarazten ditu. Baina lan-merkatua aldatu egin da eta zalantzarik da gaur egun iraganean zuen ahalmen inklusibo hori izatea.



Isolamendu- eta bakardade-egoeren inpaktua

Langabeziarekin eta enplegu-prekarietatearekin batera, bazterkeria beste gabezia eta zailtasun batzuetan agertzen da. edo horietatik eratortzen da. Horien artean, isolamendu- eta bakardade-egoerak aipatu behar dira, diskriminazioaren bizipenarekin batera, izan ere, horiek inpaktu adierazgarria dute pertsonen bizi-baldintzetan eta haien integrazio-mailetan.

Soldatapeko enpleguak jarrai dezake izaten inklusioaren oinarria eta gizarte-eskubideetarako sarbidea irekitzeko atea?

Oinarrizko galdera, beraz, zera da, ea enpleguaren zentraltasuna mantentzen jarraitu behar ote dugun errentak lortzeko oinarrizko tresna gisa, gizarte-eskubideetarako sarbide-ate modura eta gizarteratzeko berme modura.

Administrazioek langabetutako pertsona guztientzako lanpostu bat bermatu behar al dute eta bermatu al dezakete, lan bermatuaren aldekoek defendatzen duten moduan? Edo, aitzitik, Euskal Herriko administrazioek bermatu behar al die egoiliar guztiei diru-sarrera ekonomiko baldintzarik gabeko eta indibiduala, Oinarrizko Errenta Unibertsala defendatzen dutenek adierazten duten moduan?

Nola erantzun **zaintzaren krisiari?**


Nork zaindu behar ditu mendeko pertsonak, eta nola? Pertsonari begira dagoen zaintza-eredu baterantz

Zaintzen krisia: biztanleria-sektore askotan norberaren burua zaintzeko, inor zaintzeko edo zainduak izateko zailtasunak agerikoak eta gero eta nabarmenagoak dira, zaintzaren gaineko erantzukizunen banaketarako eredu tradizionala ezegonkortzearen eta sistema sozial eta ekonomiko osoa berregituratzearen ondorioz.

Gizarte-ongizateko sistema areagotu eta hobetzeko erreproduzio eta zaintzako lanen baitako genero-harremanak birpentsatu egin behar dira, eta baita zaintzaren familia gabetze maila nahiz ez-merkaturatze-mailak ere.

Horrez gain, derrigorrezkoa da zaintza horien edukien eta adin nagusiko pertsonari eman beharreko arreta motaren gaineko gogoeta egitea, pertsonari begira dagoen arretaren ikuspegitik so.

Esparru horretan, etxean zein pertsonaren ohiko ingurunean zahartzeko nahia ahalbidetzeko, ez dira beti bideratzen beharrezkoak diren baliabideak. Gizarte-zerbitzuen eskaria baliabide oso gutxi, beharrian oso nabariak edota laguntza-sare oso ahulak dituzten pertsonengan metatzen da.



Nola mantendu, finantzatu eta artikulatu daiteke gizarte-ongizate eredu zabal bat?

Gizarte-babes publikoa zergekin finantzatzen da. Herritarren beharrian ezberdin baina baterakoei erantzuna emateko modu egonkorrean lan egiten duten zerbitzu publikoen koordinazioa eta, are, integrazioa, hobetzeko urratsak eman behar dira.

Gizarte-beharrian konplexuenak, hain zuzen, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzazkoen, enpleguen edo osasuneko artean dauden zirrikietan kokatzen dira, eta horiei soilik esparru sozial eta hezkuntzazko, sozial eta osasuneko nahiz sozial eta laneko arin eta jarioekin eman ahal zaie erantzuna.

Horrek guztiorrek hurbiltasunezko boluntario-eredu bat garatzea dakar, non komunitateko pertsonak eta baliabideek beren burua antolatzen duten zerbitzu publikoek estali ezin ditzaketen beharrian batzuei erantzuteko.

Zerga edo kotizazio finalistak sortu behar al ditugu zahartzeak sorrarazten dituen gastuak finantzatzeko, Frantzia edo Alemanian egin zen moduan? Zein eginkizun bete behar dute tokiko instituzioek gizarte-ongizateko zerbitzuak ematerakoan? Zein dira funtsean herri administrazioek estali behar dituzten eta eman behar dituzten premia eta zerbitzuak eta zeintzuk utz ditzakegu merkatuaren edo herritarren solidaritatearen eskuetan?

Oinarriko berdintasun mailak bermatzeko...

Nola ekin desparekotasuna haztea:

- Indarrean dugun gizarte-babes eredu berrirorientatzea, egun ekarpen-irizpideetan gehiegi oinarritua
- Kezkagarria da gizarte-mugikortasunari ipinitako trabak eta gizarte zerbitzuen orientazio gerontokratikoa

Zein dira oinarriko berdintasun-mailak mantentzea ahalbidetzen duten politikak? Paradigma berriak:

- o Aurre banaketa
- o Gizarte inbertsioa

Gizarte-Ongizatea

Erantzunak Zaintzen krisiari

Norberaren burua zaintzeko, inor zaintzeko edo zainduak izateko zailtasunak areagotu egin dira. Pertsonari begira dagoen zaintza-eredu baterantz

Gizarte-beharrizan konplexuenak gizarte-zerbitzuen, hezkuntzako, enpleguaren edo osasuneko artean dauden zirrikietan kokatzen dira

Euskal Herriko biztanleriaren % 15 inguru gizarte-bazterkeria egoeran bizi da:

Gizarte-bazterkeria prozesuetan arrazoiak asko dira, egunerokotasuneko gabezia eta zailtasun ugarien ondorioz

Isolamendu- eta bakardade-egoerak:

Langabeziarekin eta prekarietatearekin batera, bazterkeria beste gabezia eta zailtasun batzuetan agertzen da

Gizarte inklusioa errazteko oinarriak eta mekanismoak

Proletariotzatik urritasunera:

Enplegurako sarbidea izatea funtsezkoa da gizarteratzearekin eta gizarte-bazterkeriarekin lotutako prozesuak azaltzerakoan, izan ere, enpleguak garapen pertsonala, gizarte-partaidetza eta ongizate psikologikoa sorrarazten ditu.

Enpleguak babesa ematen du txirotasunaren eta bazterkeriaren aurrean, baina ez lehen bezala...

Galdera ikurrak:

- Administrazioek langabetutako pertsona guztientzako lanpostu bat bermatu behar al dute eta bermatu al dezakete, lan bermatuaren aldekoak defendatzen duten moduan?
- Edo, aitzitik, Euskal Herriko administrazioek bermatu behar al die egoiliar guztiei diru-sarrera ekonomiko baldintzarik gabeko eta indibiduala, Oinarriko Errenta Unibertsala defendatzen dutenek adierazten duten moduan?

Galderak:

- o Zerga edo kotizazio finalistak sortu behar al ditugu zahartzeak sorrarazten dituen gastuak finantzatzeko, Frantzia edo Alemanian egin zen moduan?
- o Zein eginkizun bete behar dute tokiko instituzioek gizarte-ongizateko zerbitzuak ematerakoan?
- o Zein dira funtsean herri administrazioek estali behar dituzten eta eman behar dituzten premia eta zerbitzuak eta zeintzuk utz ditzakegu merkatuaren edo herritarren solidaritatearen eskuetan

Galderak:

- Nola bermatu aukera-berdintasuna? Nola ekin gurasoen kapital kulturalak seme-alaben abaguneak baldintza ditzala?
- Nola lor daiteke helduen, gazteen nahiz haurren beharrazane erantzuneko dien belaunaldi arteko itun bat?
- Aurre-banaketa edo/ta birbanaketa?